

2011KO URTEKO TXOSTENA

gazte**E**mpresa
FUNDAZIOA

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



900 10 11 43

www.gaztempresa.com

bizkaia@gaztempresa.com
gipuzkoa@gaztempresa.com
alava@gaztempresa.com
navarra@gaztempresa.com

SORTZAILEA



EAEKO FINANTZATZAILEAK



Con la colaboración del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, del Fondo Social Europeo, a través del Programa Operativo de Empleo, Competencias y Empleo 2007-2013.



NAFARROAKO FINANTZATZAILEAK







AURKBIDEA

1. Lehendakariaren gutuna
2. Gaztempresa, nor garen
3. Gaztempresa osatzen duten pertsonak
4. Jardun-lerroak
 - Enpresak sortzea
 - Enpresak sendotzea
 - Ekintzailletza sustatzea
5. Gaztempresa **komunitatea**



LEHENDAKARIAREN GUTUNA

Hirugarren krisi-urtea igarota, badirudi lan- eta ekonomia-egoerak ez duela epe laburrean egoerari buelta emateko itxurarik. Aurreikuspen baikorrek ere ez dute 2012rako eta 2013rako susperraldirik iragartzen. Hori dela eta, gure Gaztempresa Fundazioak ekintzailatza bultzatzen egiten duen lanak inoiz baino zentzu handiagoa du.

Euskadiko Kutxarentzat, enplegu-sorkuntzari laguntzea gure enpresa-ADNaren parte da, gure helburu korporatiboen barruan baitaude orientazio kooperatiboa, bertakoarekiko lotura eta garapen ekonomikoarekiko konpromisoa gure jarduera-esparruan. Euskadiko Kutxan, "Bada beste modu bat" gauzak egiteko esloganak errealitate bat adierazten du. Gurea proiektu kooperatiboa da, eta hori nabaritu egiten da gure izateko eta jarduteko eran.

Hemen, lanean dihardugunok bazkideak gara. Horregatik, enpresa gurea delako, gure erakundeko pertsonoi errazago egiten zaigu edozein ekintzaile bere proiektua hasterakoan dituen arazoak eta beharrianak ulertzea. Entzun egin nahi diogu, erantzun eta bere proiektuarekin bat egin, enpresaren eta enpleguaren sorkuntza-prozesuan parte hartuz, horretarako jaio baikara. Ekintzaileaz kezkatzen gara, baita gure lurraz ere; izan ere, bere irabaziak bertako enpresetan eta familietan inbertitzeko jaiotako erakunde bat da gurea.

Gaztempresa proiektuan, ekintzaileek ez ezik, beste hainbat pertsonak ere hartzen dugu parte. Hasteko, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako gure bulego-sareko profesionalak aipatu behar dira, eta, jarraitzeko, Sail Orokorretakoak, gogoia eta proaktibitatea helarazi dutenak, inor ez dadin gelditu bere proiektu eta beharrianei erantzun egokirik jaso gabe, ideia on guztiek beharrezko laguntza jaso dezaten, eta abian den proiektu bideragarri orok izan dezan gertutasunetik emandako kalitatezko aholkularitza. Zerbitzuak berregokitu ditugu bulegoetako gertutasunetik zuri laguntzeko, eta profesional espezializatuak prestatu ditugu zure enpresa sortzen lagundu zaitzaten. Eta

Gaztempresaren hastapenetatik, Bultz-lan Consulting-ek ematen duen enpresa-aholkularitza zorrotz eta profesionala ere badugu, aldi berean hurbila eta gogotsua dena.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Saileko eta Lanbideko arduradun nagusiek eta MONDRAGON Fundazioak erakutsitako sentsibilitatea, baliabide ekonomikoekin laguntzeaz gain Fundazioari bultzada gogoberritua eman baitiote ekintzailatzari laguntzen jarrai dezan.

Eta horrek guztiak emaitzak eman ditu, eta zifra batzuk azpimarratzea komeni da: joan den urtean 823 eskaerari erantzun zitzairen, 359 diagnostiko ["itinerario"] egin ziren, eta 184 enpresa berriri lagundu zitzairen 2011an zehar; ondorioz, hasiera batean 266 lanpostu sortu ziren.

Gaur egungo merkatuaren baldintza gogorrek ekarritako zailtasunei ere aurre egin behar izan zitzairen, eta sortu berri diren enpresek lan handia egin dute eta gogo handiz jardun dute martxan jarri ahal izateko. Eta zailtasun horiek direla eta, mikroenpresa berriei inoiz baino laguntza handiagoa eman behar zaie. Horretarako, ekintzailatzari laguntzeko sistematikaren barruan eta elementu berritzaile gisa, "enpresak sendotzeko tailerrak" dauzkagu, mikroenpresen eguneroko kudeaketan sortzen diren zailtasunei irtenbide praktikoak emateko, bai eta ekintzaileen eta enpresen "sare sozial" bat ere, negozio berrien artean harreman-bideak erraztu eta elkar lagundu ahal izan dezaten.

Azken datu bat: sexuka, urteko 184 ekintzaile berrien %50a emakumezkoa da, eta beste %50a, gizonezkoa. Ikus daiteke, beraz, sexuen arteko berdinketarako joera dagoela enpresa-jardueran, dudarik gabe EAEko eta Nafarroako erkidegoen bereizgarri dena. Jabetuta nago Fundazioak iraganean izandako arrakasta posible egin zuten pertsona guztien konpromiso eta eskuzabaltasunak, beste behin ere, biderkatu egingo dituela ekiteko bidea hasten duten pertsonen ahaleginak eta imajinazioak merezi dituen emaitzak. Horrela, datozen urteetan ere gure erkidegoari egindako ekarpenetatik harro sentitzeko arrazoi legitimoak izango ditugu.

Xabier Egibar Gainza
Gaztempresa Fundazioaren presidentea



GAZTEMPRESA

Gaztempresa Fundazioa erakunde pribatua da, irabazi-asmorik gabekoa. Euskadiko Kutxaren gizarte-ekintzaren barruan txertatuta dago, eta haxe du helburu nagusia: enplegua sortzeko eta enpleguari eusten laguntzeko ekimenak sustatzea eta ekintzak bideratzea. Horretarako, hainbat programa eta zerbitzu antolatzen ditu, bere erabiltzaileen, erakunde aliatuen eta, oro har, gizartearen enpresa eta lanbide arloko garapenari balioa emateko.

Honako hauei begira dihardu Fundazioak:

- Pertsona ekintzaileak, batik bat gazteak.
- Lan arloan eta gizartean zailtasunak dituzten pertsonak eta taldeak.
- Mikroenpresa gazteak, garapen-proiektuak lantzen dituztenak.
- Ikasleen artean ekintzailtza sustatu nahi duten formazio-erakundeak.



NOR GAREN?

PATRONATO

Xabier Eguibar

Jon Emaldi

Ibon Urgoiti

Jose M^a Usatorre

Koldo Aizpurua

Pello Ugalde

Javier Cortajarena

Iñaki Armentia

GIURE BOLUNTARIOAK

Josetxu Urrutia

Susana Andrés

Alex Gómez

Pilar Crespo

Alvaro Líbano

Iker Etxebarrieta

Aitor Berlanga

Jokin Longarte

Pero M^a Jiménez

Juan María Osteriz

Arantxa Olaizola

Iñaki Urtasun

Aitor Azpiazu

Iñaki Zamorano

Ibon Otaegi

Ainhoa Azurmendi

Javier Larrañaga

Fernando Reparaz

Eduardo Elizalde

Borja Gárate

Ander Toña

Eñaut Erodiza

Kontxi Alzaga

Iñaki Juanbeltz

Maitane Loyola

Naiara Lopetegui





JARDUN- LERROAK

1. Enpresak sortzea
2. Enpresak sendotzea
3. Ekintzailletza sustatzea

ENPRESAK SORTZEA

Helburu nagusia

Enpresa-ekimenak garatzen laguntzea, negozio-idea bat duten eta autoenpleguaren bidea hartu nahi duten pertsonen.

ESKANTZEN DUGU

Aholkularitza-zerbitzuak

Imajinatzen duzu aholkulari tekniko eta kudeatzaile pertsonal bat izatea kosturik gabe eta zure proiektu berriaren zerbitzura?

Finantzaketa-plana

Jarri abian zure enpresa berria, behar duzun babes ekonomikoarekin.

Aukerak zure negozioarako

Ireki da zure negozioa, eta baita aukera berriak ere Gaztempresa Sarearekin.

Consulting – PRO zerbitzua

Zure negozioarako laguntza izateak ematen duen lasaitasuna.

184 2011IN
ENPRESA
SORTU DITUGU

266 2011IN
LANPOSTU
SORTU DITUGU

2011IN SORTUTAKO ENPRESAK

ARABA	29
BIZKAIA	82
GIPUZKOA	50
NAFARROA	23
GUZTIRA	184

2011IN SORTUTAKO LANPOSTUAK

ARABA	47
BIZKAIA	121
GIPUZKOA	63
NAFARROA	35
GUZTIRA	266

2.800


BAT ENPRESA SORTU DIRA

5.000

BAT LANPOSTU SORTU DIRA

PROGRAMAREN BILAKAERA


Gaztempresa 1994. urtean sortu zen, eta gaurdaino, **2.782** empresari lagundu die, eta, laguntza horri esker, **4.985** lanpostu sortu dira.



EKINTZAILEEN PROFILA 2011



LAN EGOERA



FORMA JURIDIKOA




SEKTOREA
JARDUERA

Zerbitzua
%68

Bestelakoa
%6

Merkataritza
%26





2011N, 51.000 EUROKO INBERTSIOA EGIN DA, BATEZ BESTE, ENPRESA BERRIAK ABIAN JARTZEKO.

2011N, 29.000 EUROKO MAILEGUA BEHAR IZAN DA, BATEZ BESTE, ENPRESA-PROIEKTUAK GAUZATZEKO.

51 (milaka eurotan)
inbertsioan,
batez beste

29 (milaka eurotan)
mailegutan,
batez beste





ENPRESAK SENDOTZEA

Negozio bat abian jartzea lan gogor eta korapilatsua izaten da. Horregatik, ekimena abian jartzeko prozesu horren ondoren, ahalegin eskerga horren emaitzak sendotzeko garaia etortzen da. **Zeregin horretan, Gaztempresaren laguntza dute enpresaburuek, enpresa berriak merkatuan sendotzea baitu jardun-lerro nagusietako bat.**



ZURE NEGOZIOA ABIAN JARTZEN LAGUNDUKO DIZUGU

ENPRESAK SENDOTZEKO, LAGUNTZA HAUEK EMATEN DITU GAZTEMPRESAK:

1. Enpresak sendotzeari buruzko tailerrak eta mintegiak, enpresen arabera egokituak.

2. Enpresetarako aholkularitza espezializatua.

3. Interneteko “Sare Sozial” bat, aukera hauek ematen dituena:

- Interneten presentzia izatea.
- Beste enpresa batzuekin harremanetan jartzea.
- Gaztempresarekin harreman zuzena izatea.

4. Consulting Pro zerbitzua, enpresetarako kontsulta, diagnostiko eta aholkularitzarako. 900 100 240 telefono-zenbakiaren, webgunearen, newsletterren eta mintegien bidez, enpresek aukera dute beren zalantzak argitzeko, lan arlokoak nahiz zerga arlokoak, baita negozioaren kudeaketari loturiko beste edozein arlotakoak ere, hala nola kontratuei, diru-laguntzei eta abarri buruzkoak.



Enpresaburu berriei eguneroko lanean hartu beharreko erabakietan lagundu nahi diegu, bide hauetatik:

1. Norberaren ikuspegia eta erabakiak beste batzuenekin erkatzea.
2. Norberarenaz bestelako ikuspuntuak kontuan hartzea.
3. Irtenbide egokiak, finantza-baliabideak injektatzetik harago.
4. Neurri pertsonalizatuak, arazo bereziak dituzten enpresetarako (inbertsioak merkatu-aldaketak, ixteko erabakiak...).
5. Beste enpresa batzuekiko harreman horizontal nahiz bertikalak.
6. Informazioa, esperientziak eta harremana trukatzeko beste enpresa batzuekin, enpresaren onurari begira.

ERLAZIONATUTAKO EKINTZAK

EGINDAKO TAILER KOPURUA	9
-------------------------	---

PARTE HARTZAILE KOPURUA	49
-------------------------	----

Honako gai hauek landu dira:

- Errentagarritasunaren analisia.
- Oinarrizkoa: diruzaintzako kontrola eta ustiapena.
- Sare Sozialak.
- Salmenta aktiboa eta bezeroak leialtzea.

ENPRESETARAKO AHOLKULARITZA	17
-----------------------------	----

AHOLKULARITZA KONTSULTAK	832
--------------------------	-----

EGINDAKO MINGTEGIAK	16*
---------------------	-----

* 403 enpresak parte hartu dute.


Gaiak:


- Berankortasuna, autonomoak eta ETEak.
- Lan-erreforma.
- Laguntzak eta diru-laguntzak.
- Itxiera fiskala: optimizatzeke gomendioak.



1.061
PERTSONATIK GORA
ERREGISTRATUTA

10.636
BISITATIK GORA
WEBGUNEAN





GAZTEMPRESA SAREA

Sorturiko enpresei eskainitako zerbitzuetan berrikuntzak egiten jarraitzeko, "Sare Soziala" da gure proposamen interesgarrietako bat.

Plataforma honen bidez, abantaila hauek eskaini nahi dizkiegu ekintzaileei:

- **Interneten presentzia izatea eta sarea beren negozioen publizitatea egiteko erabiltzea.**
- **Harremanetan jartzea beste enpresa berri batzuekin, lankidetzak edo transakzioak gauzatzeari begira.**
- Gaztempresarekin harreman iraunkorra izatea eta Fundazioarekiko harremanetan protagonismoa izatea.





EKINTZAIETZA SUSTATZEA

Babesa eskaintzen diegu ikasleen artean ekintzailletza eta berrikuntza-proiektuak sustatu nahi dituzten unibertsitateei eta lanbide-heziketako zentroeiei, diru-laguntzen eta ekimen espezifikoen bidez. Era berean, babesa eskaintzen diegu autoenplegua lanerako beste aukera bat dela ez dakiten langabeei.

GAZTEMPRESAREN
LAGUNTZA, PRESTAKUNTZA-
HITZALDI, TOPAKETA
ETA ENPRESA-EKIMENEN
LEHIAKETEN BIDEZ.

MONDRAGON
unibertsitatea

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

EKITEN: Enpresa Ideien Lehiaketa

- 29 ideia berritzaile aurkeztu ziren.

- Saritutako proiektuak:

1. saria: “Erosotasuna erosketetan: Erosketak orgatxorik gabe”, Nerea Gil Castro. Telekomunikazio Ingeniaritzako ikaslea. MU-GEP.

2. saria: “Hiri eta herrietan aparkatzeko orduan arazoak ekiditeko eta erraztasunak eskaintzeko aplikazio mugikor bat”, Elisabete Ezeiza Iburguren. Antolakuntzako Ingeniaritza Graduako ikaslea. MU-GEP.

3. saria: “Disainnitek”, Ainara Garmendia Uribe. Industria Ingeniaritzako ikaslea. MU- GEP.

LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA GRADUA (LEINN)

Mondragon Unibertsitatearen gradu berri honen bidez, enpresen lider izan daitezen trebatu nahi dira pertsonak. Eginez ikasteko lan-metodoan oinarrituta dago (learning by doing). Horretarako, lehen mailan bertan sortutako talde autogestionatu eta enpresetan antolatzen dira ikasleak.

Hala, bezero errealekin eta proiektu errealetan aritzen dira.

Zeregin horretan, graduarekin lankidetzan dihardu Gaztempresak, hitzaldiei nahiz proiektuen garapenari dagokienez.

NAVARRA-TECNUN unibertsitatea

LANBIDE heziketa

NAFARROAKO UNBERTSITATEA - TECNUN

LANBIDE HEZIKETA

TECNUN: Kirol Asmakizun eta Diseinuaren V. Lehiaketa.

Lehiaketa honen bidez, sorkuntza eta ideien garapena sustatu nahi dira.

Talde-lana eta ideiak sortzeko tekniken erabilera sustatzen du.

Espiritu kritikoa sustatzen du, produktuak hobetzeko.

Marrazketako tresna informatikoen erabilera sustatzen du.

- Parte-hartzaile kopurua: **65 ikastetxetako 298 talde.**
- Pertsona kopurua: Batxilergoko 1. eta 2. mailetako **895 ikasle.**

Saritutako proiektua: “Kolpe-kontagailu automatizatua, golferako”.

2011ko helburua izan da Gaztempresa aurkeztea eta lankidetzak gauzatzeko aukera aztertzea.

Emaitzak honako hauek izan dira:

1.- Elorrieta LH

Ekintzailletza sustatzeko hitzaldiak.

2. Gaztelan Fundazioa: Aldapa Programa:

“ALDAPA Trebakuntza Oinarrizko Enpleguetarako” programaren helburu nagusia da parte-hartzaileen enplegarritasuna areagotzea, lan-merkatu normalizatuko enpresetan gauzatutako lan-esperientzia baten bidez eta ikasgelan enplegu batean aritzeko eta hari eusteko trebetasun pertsonalak ikasiz.

Programa hau Gaztelan Fundazioak kudeatzen du.

Erakunde horren helburu nagusia da baztertuta dauden edo baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzea, lan arloan txertatuz, eta pertsonak ekonomiaren parte aktibo eta xede izango diren ekonomia solidario bat garatzen laguntzea.

